

BOTERE PERTSONALA, LIDERGOA, PARTE-HARTZE SOZIALA ETA TALDE LANA

IRAKASLEENDAKO JARRAIBIDEAK

IKASLEEN PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA

Gure ikastetxeetako neskek eta mutilak (irakasle emakumezkoak eta irakasle gizonezkoak, amak eta aitak...) eskolako jardueretan, atazetan, arduetan, espazioetan, denboretan eta abar egoteak edo ez egoteak edo parte hartzeak edo parte ez hartzeak baldintzatzen du haien nortasunaren osaera eta garapen pertsonal eta akademikoa. Hau da, haien heziketa baldintzatzen du, bakoitzaren presentzia eta parte-hartzea zuzenean loturik baitago honako alderdi oinarritzako eta funtsezko hauekin:

- ▶ Gainerakoak onartzearekin eta norberaren autoestimuearekin, segurtasunarekin, asertibotasunarekin... Haien nortasunarekin, rolaekin eta estatusarekin.
- ▶ Protagonismoarekin eta ardurak nork bere egitearekin, dela autonomia pertsonalerako dela lidergoaren ahalmenerako.
- ▶ Sozializazioarekin eta parte-hartze demokratikoarekin, herritartasun osoa ikastearekin.
- ▶ Irakasleen arretarekin eta dedikazioarekin, jarraipenarekin, eta bata bestearenganako elkarrekintzarekin.
- ▶ Hezkuntza prozesuari dagokionez, ikaskuntzaren eta gogobetetasunaren aurrean dagoen motibazioarekin, eskolako esperientziarekin eta garapen pertsonalarekin.

GIZARTEAN ETA HERRITAR GISA JARDUTEKO GAITASUNA

Gizarte demokratiko eta parte-hartzaileak sustrairik sendoenak eskolan ditu. Horretarako, eskolak barne-hartzailea eta integratzailea behar du izan eta ez du inor baztertu behar sexuagatik, gizatalde batekoa izateagatik, etniagatik, sinesmenengatik eta abarregatik. Eskola honek bermatu behar du eskolako kide guztiak eskolako parte izanen direla eta hartan parte hartuko dutela:

- ▶ Sexuak ezin du mugatu edo baldintzatu emakumezkoek eta gizonezkoek ikastetxeetako esparru guztietan izanen duten presentzia, mugikortasuna, parte-hartzea, ordezkaritza, koordinazioa, zuzendaritza...
- ▶ Eskolako hezkuntzak galarazi behar du tradizioz emakumezkoek eta gizonezkoek esleitutako genero estereotipo eta rola mugatzea ikasle eta irakasle emakumezkoen, amen... sarbidea gizarteko parte-hartze, ordezkaritza eta erabakitze esparruetan, euren gaitasun sozialaren garapenean eta herritartasun osoaren erabileran.

HEZKUNTZA ETA PARTE-HARTZEA

Lanean izandako esperientzia pertsonalak eta ikastetxeetan arlo honetan eginiko ikasketek agerian uzten dute ikastetxeetan hierarkia argia ezartzen dela gure ikastetxeetako neskek eta mutilak eskolan duten presentzian eta parte-hartzean, hezkuntzaren ikuspuntutik haren kon-



**Nafarroako
Gobernua**

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetzalantzen

botere pertsonala

Botere pertsonala eta lidergoa izan nahi badira eta gizartean parte-hartu eta lana taldean egin nahi bada, **ikasle emakumezkoek boterea hartuz joan behar dute (enpoderatzea)**. Hots, **persona batek bere bizitza ukitzen duten baliabideen eta erabakien gainean nagusigoa eta boterea handituz joan behar dute.**

Horretan mutilek neskek baino erreferente eta eredu gehiago dituzte gizartean. Oro har, eskolatik kanpo ere mutilek hezkuntzako eta gizarteko beste esparru batzuetan ikasten dituzte erreferente eta eredu horiek, hala nola, familian, komunikabideetan, kirolean eta abarretan. Ez da hala gertatzen neskek: neskek eskolaren esku-hartzea beharrezkoa dute aginpidea eta botere pertsonala lagatzeko hezten dituzten eredu sozialei aurre egiteko.

enpoderatzea

Alderdi pertsonalei dagokienez, enpoderatzea da argi izatea zer nahi dudan, jakitea nora iritsi nahi dudan eta horrekin eta horretan ongi sentitzea. **Aske izatea da, neure erabakiak hartzea.** Horrek berarekin dakar familiaz gainera bizitza propioa izatea eta harekin gozatzea: norbera izatea.

Alderdi kolektiboari dagokionez, kontua da **lana elkarrekin eta taldean egitea lorpen sozialak, politikoak eta ekonomikoak eskuratzeko**. Era berean, enpoderatze horrek aipatzen ditu emakumeen arteko hitzarmenak eta sororitatea (Marcela Lagarde): emakumeen arteko ahizpatasuna, konfiantza, fideltasuna, laguntza eta onarpena, bestelako mundu bat egite-

ko (mundu horretan emakumeek botere pertsonala izanen dute).

autonomia

Enpoderatze hori gauzaten eta agertzen da **autonomia fisiko, ekonomiko, politiko eta soziokulturalean**. Hori dela-eta, ezinbestekoa da gure ikasleak autonomia pertsonala izan dezaten heztea, neskak zein mutilak pertsona beregainak izan daitezen, nahi duten bizitza proiektua garatu eta hori lortzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko dituztenak. Hori ezinezkoa izanen da ez badugu dekonstruitzen eta ez badugu kontuan hartzen zer eragin duen ikasle bakoitzak botere pertsonala izan dezan eta norbera den bezalakoa izan dadin zailtzen duten genero-rol eta -estereotipoen eraginak.

ordezkaritza, berdintasuna

Gure **istema demokratikoa** ordezkartzan oinarritzen da. Pertsona batzuk aukeratzen ditugu gure ordezkari izan daitezen erabakiak hartu behar direnean eta boterea erabili behar denean. Egiazki ezin da demokrazia-rik izan biztanleen %50, emakumezkoak, erabakitzeko organoetan ez badaude eta, orobat, ikasleen %50ek, neskek, ikastetxeetan ordezkariarik ez badute eta bertan parte hartzen ez badute. Parte-hartze soziopolitikoaren datu estatistikoek erakusten diguten bezala, emakumezkoen eskubideak onarturik badaude ere, erakundeetan bazterturik jarraitzen dute. Beste esparru batzuetan bezala, lege eta forma aldeko berdintasunak ez dakar berarekin emakumeen eta gizonen arteko **egiazko berdintasuna**.

beirazko sabaia

Berdintasuna tresna bat da, emakumeak erabakiak hartzen diren esparruetan egon daitezen eta ez hori bakarrik, baita, haien ordezkariak eraginkorraren bitartez, gizarte justuago bat lortzeko bitarteko modura ere. Lege-kontzeptuak berdintasuna ezartzen du %60-40ko ordezkartzan sexu-etako edozeinen alde.

Kontzeptu hau erabiltzen da aipatzeko zer **hesi ikusiezinak galarazten**

tra jotzen ez bada bederen:

- ▶ Eskolako ibilbidean, oro har, eskolako esparruetan mutilek bereganatzen dituzte hizketa, eztabaidak, espazioak, jarduerak, erritmoak, ordezkariak, erabakiak hartzea...
- ▶ Neskak, oro har, arian-arian alde batera gelditzen dira gutxietsiak, kuestionatuak, barregarri utziak, azpiratuak, presionatuak, moles-tatuak, kaltetuak eta baita erasotuak ere izateko beldurrez.

Eskola garaian ikasturtez ikasturte ikasitako dualtasun hau naturala, normala eta saihetsezina dela uste dute ikasle, irakasle, familia... batzuek eta ikasle gehienek ez dute ikusi ere egiten neskek eskubide bera izan dezaketela hizketarako, arretarako, errespeturako, ideietarako, zaletasunetarako, lehentasunetarako eta interesetarako, espaziorako, ordezkari-tzarako, zuzendaritzarako, lidergorako, onarpenerako eta abarrerako.

- ▶ Mutilek ordezkariak postuak bete ohi dituzte: ordezkariak, kapitai-nak, koordinatzaileak, zuzendariak eta abarren artean gizonezkoak gehiago dira emakumezkoak baino. Baita neskak kopuruz gehiago diren taldeetan ere, hala nola, karrera feminizatuetan, unibertsitatean, eskolako klaustroetan, etab.

HEZKUNTZA ETA PARTE-HARTZEA NAFARROAN

Hezkuntza hau bizi garen gizartearen isla da eta, alderantziz, ikas-kuntza honek eratzen eta berregiten du gizartearen eta eskolaren erre-alitatea (2011ko uztailako datu ofizialak):

- ▶ Nafarroako Eskola Kontseilua: kontseiluburua emakumezkoa da. Batzorde Iraunkorren emakumezko 1 eta 8 gizonzko daude. Horixe bera gertatzen da ikastetxeetako eskola kontseilu gehienetan.
- ▶ Nafarroan dauden unibertsitateak, publikoak eta pribatuak, pre-sentzialak edo urrunekoak: 4 errektore gizonzko. Espainian 77 unibertsitateetako errektoreetatik 11 dira emakumezkoak (%14). Unibertsitateko katedradun emakumezkoak %14 dira. Ikasle eta irakasle emakumezkoen kopurua ikasle eta irakasle gizonzkoena baino handiagoa izan arren.
- ▶ Guraso Elkarten Nafarroako Federazioak: denak gizonzkoak dira. Oro har hala gertatzen da ikastetxe bakoitzeko elkartearen batza-rrean. Burua eta diruzaina gizonzkoak izaten dira eta familiekin egin ohi diren bileretara, guraso eskoletara, txangoetara... nagusi-ki emakumezkoak joaten dira.
- ▶ Nafarroako Lanbide Elkarteak: 7tan buru emakumezkoak dira (%18) eta 32tan gizonzkoak (%82). Nafarroako zentral sindikale-tako buru guztiak gizonzkoak dira. Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioko Batzorde Exekutiboan 18 gizonzko (%86) eta 3 emakumezko daude (%14).

HEZTEA GIZARTEAN PARTE HARTZEKO

Ikasleak gizartean presentzia eta parte-hartzea izan dezaten hezten baditugu, berraztertuko dugu emakumezkoen eta gizonzkoen ordezkari-tza parekidea izanen dela jarduten den eta erabakiak hartzen diren esparru guztietan, eta aukera berdintasuna izanen dutela. Aurreko ata-letan ikusi dugun bezala, hezkuntza hau ez da berez sortzen, tradizioz edo inertziak. Aitzitik, beharrezkoa da esku-hartze kontziente eta borondatezkoa, "normal"tzat hartzen denaren kontra:

- ▶ Esaten da mundu publikoan eta bizitza sozialean, politikoan, eko-nomikoan... emakumezkoek ezin dutela parte hartu, ez dakitela

parte hartzen, ez dutela parte hartu nahi, ez dutela gustuko parte hartzea, ez dutela ongi egiten..., ez dakitela zuzentzen, gidari izaten, erabakitzen, agintzen, etab. Halako genero-aurreiritzi eta ereduak behatu, onartu, aztertu eta borrokatu behar dira.

- ▶ Esaten da mundu publikoan eta bizitza sozialean, politikoan, ekonomikoan... gizonezkoak nahitaez sortu direla zuzentzeko, buruzagi izateko, erabakitzeko, agintzeko eta abarrerako eta horien beren lana dela, berez horretarako daudelako, atsegin dutelako, beti ongi egiten dutelako. Halako genero-aurreiritzi eta ereduak behatu, aztertu eta borrokatu behar dira.
- ▶ Parte-hartze soziala eta herritarrarena pertsona bakoitzaren garapen osoaren eta autonomiaren zati nahitaezko modura erlazionatu eta lantzea, berdina izan gizonezko edo emakumezko, gure gizartean demokraziarako nahitaezkoa eta beharrezkoa den baldintza modura.
- ▶ Hezteko pertsona bakoitzak boterea izan dezan eta hura handiagoa izan dadin, bereziki neskei dagokienez, zeinek ikastetxetik kanpo eredu eta erreferente tradizionalak dituzten, mutilen parte-hartze sozialarekin alderaturik rol egokitu, osagarri eta bigarren mailako bat hartuz.

PARTE HARTZEN PARTE HARTUZ IKASTEN DA

Eskolako esparru eta jarduera guztietan parte hartuz, bereziki honako hauek dituztenetan:

- ▶ Presentzia publikoa, espazio zentrala, kokapen nabarmendua, hitza hartzea, onarpena, kontsiderazioa, protokoloa, etab.
- ▶ Funtzio hauek: ordezkaritza, ordezkapena, koordinazioa, antolaketak, erabakiak hartzea, bitartekotza eta abar.
- ▶ Parte-hartze aktiboa lantaldeetan, batzarretan, bileretan, klaustroetan, zuzendaritza taldeetan eta abarretan.

Paraleloki, bereziki aipatzekoak dira maiz gertatzen diren zenbait ekin-tza adierazgarri, hala nola, inauteriak, festak, Eguberriko jaialdiak, edozein motatako ekitaldiak, urtebetetzeak eta ospakizunak, kirol ikus-kizunak, antzezlanak, etab. Eskolako gertaera adierazgarri, enblematiko eta esanguratsuak dira oso.

ORDEZKARI IZATEN ORDEZKARI IZANEZ IKASTEN DA

Gertaerak formalak, ez-formalak edo festarakoak izan edo ez, eskolako ekintza adierazgarriek zama sinboliko handia dute ikasleengan, irakasleengan eta familiengan. Egintza horiek pertsona jakinei estatus eta onarpena ematen diete eta horrekin batera estimazioa, onarpena, ordezkaritza, agintea, eskubidea... Horietan guztietan modu zehatzago edo lausoago batean ondokoak gertatzen dira:

- ▶ Interes eta arretarako foko nagusia (mahaiburua, atrila, tribuna, tirma...), non ordezkariari ikastetxe osoko edo ikastetxeko kolektiboetako baten ordezkari izatearen balio erantsia ematen zaion. Batzuetan ordezkari-balio goranzko edo beheranzko argia duten tokiak daude.
- ▶ Toki bat, zeinetan hitz egiten den, jendea hartzen den eta aurkezten den, eta ikastetxearen izenean eta/edo haren ordezkari moduan arauak eta proposamenak ematen diren eta eskatzen duenari hitza ematen zaion eta abar.
- ▶ Eta, azkenik, jende multzo zabala (bertaratuak, entzuleak, gonbidatuak, elkartuak eta une jakin horretan parte-hartzaileak). Horien banaketa alde aurretik prestatutakoa izan daiteke eta horrek nes-

dien emakume gaituei talde modura euren lantegietan erantzukizun eta erabakimen postuak hartzerakoan. Ikusiezina da ez dagoelako emakumeei antzeko mugarrik jarriko dion lege eta tresna sozial ezarriarik eta muga hori antzematen oso zailak diren bestelako ezaugarri sozial, inplizitu, informal eta ohikoen gainean eraikita dagoelako. Elementu horiek gure nesken gain eragiten dute eta haien erabakiak baldintzatzen dituzte, esate baterako, erabaki akademiko-profesionalak hartzerakoan (euren espedienteak eta egiazko aukerak baino kualifikazio txikiagoko aukerak hartu ohi dituzte).

Geldotze honen zergatiak gehienbatean **estereotipo eta aurreiritzi sozial hauetatik datoz: emakumeak gaitue diren** erantzukizuneko postuetan aritzeko eta euren lanerako erabilgarritasuna amatasunari eta familiako erantzukizunei lotua izatea; jarduera horiek lanbide sustapenari lotutako ibilbide profesionalaren faseekin bat egiten dute. Era berean, **"zoru itsas-kor"** moduan ezagutzen da, aipatuz emakume asko piramide sozialaren, ekonomikoaren eta abarren oinarrian kateatuta daudelako.

lanaren banaketa sexuaren arabera

Faktore nagusi eta ikusiezina da sexuaren araberako lanaren banaketa, hau da, **lanak sexuaren arabera banatzea.** Tradizioz emakumeek lan batzuk egin dituzte eta gizonek beste batzuk. Emakumeei sozialki esleitu zaizkie etxea zaintzeko lanak, ugalketa lanak... eta gizonei, berriz, esparru publikoarekin, ekoizpen-lanekin eta abarrekin lotutakoak. Lanaren sexubanaketa hau baneratzetik hasita, genero-rolak eraikitzen dira eta horiek dira praktikan emakumeen diskriminazioan ageri direnak.

lidergoa

Batzuetan erantzukizuneko, zuzendaritzako eta erabakiak hartzeko postuetan emakumerik ez izatea (edo neskek ordezkari, kapitain, entrenatzaile, ordezkari, etab. ez izatea) egozten zaio neskek lidergorik ez izateari. Hala, **lidergorik ez izateak** agerian utz

dezake gabeziak daudela boterea hartzerakoan edo botere pertsonalik ez dagoela. Hau da, autonomia pertsonalerako heziketa onik eta pertsonaren garapen integralik eta herritartasun osorik ez izatea. Hartara, gabezia horiek gure heziketa sisteman zuzendu beharko lirateke.

Hori hala izanik ere, **zer da lidergoa?**; zer ezaugarri behar ditu lider edo buruzagi batek?; liderrak aipatzen ditugunean nor etortzen zaigu burura? Lidergoa aipatzen denean, jende gehienari gizonak eta energiaren erabileraren etortzen zaizkio burura eta, horrekin batera, oso maskulinoa den estilo hierarkikoa duten helburuak lortzeko boterea. Estandar honetatik abiatu, badirudi emakumeek ez dutela lidergonik. Hala ere, gure gizartean, buruzagi izatea ez da agintzea, erabakitzea eta gainerakoek jarraibideak betetzea. Buruzagi izatea gero eta gehiago da komunikatzea, mintzatzea, konpromisoa hartzea, helburu komun bat partekatzea eta norabide horretan lana taldean egitea. Ikuspuntu horretatik abiatu, emakume asko (neska asko) buruzagi onak dira eta gizon askok (mutil askok) ez dute lidergonik.

eten digitala

Iraultza teknologikoa aldatetak sortzen ari da hezkuntzaren izaeran, parte-hartzean, harremanetan, boterean, komunikazioan, lidergoan, erabakiak hartzerakoan... Teknologia berriek ikasteko **aukera berriak** eta parte hartzeko eta boterea hartzeko modu berriak ematen dizkiete gure neska-mutiei. Alabaina, neskek, emakumeek, erabili nahi badituzte, gaur egungo gizarte guztietan dagoen eten digitala gainditu behar dute.

- Emakumeak **%24 dira informatikako ingeniartzako ikasketetan.**
- Wikipediako artikuluetatik %15 soilik dira emakumeek idatzitakoak.
- Espainiako eten digitala %15ekoa da (gizonezkoen alde), Interneten sartzean dagokionez, eta %10ekoa, Internet erabiltzeko maiztasunari dagokionez.
- Emakumeek gizonen baino %50 gutxiago erabiltzen dituzte Interneteko lotura duten telefono mugikorrek. %25 gutxiago telebista eta/edo irratia Interneten. Eta softwarea %39 gutxiago deskargatzen dute.

ken eta mutilen, emakumezkoen eta gizonezkoen rola eta estatusa ere marka ditzake.

Halako ezaugarriak dituen egintza baten behaketa puntual bakarra adierazgarria izanen da soilik bere testuinguruak lagundurik egindakoa bada eta beharbada ondorio handirik ateratzerik ez den kasualitate hutsa izanen da. Egintza eta egokiera desberdinen behaketa sistematikoak nola jokatu eta zer egin erakuts diezaguke, esate baterako, ondoko hauetan bat egiten badute:

- ▶ Irakasle gizonezkoak, mutilak eta aitak rol pribilegiatuetan, aktibitatean eta erakusgarrietan egotea eta parte hartzea eta, berriz, irakasle emakumezkoak, neskak eta amak bigarren mailako roletan, marjinatuetan eta adierazgarritasunik gabeko rol pasiboetan egotea eta parte hartzea.
- ▶ Irakasle emakumezkoak, emakumezkoak eta neskak egotea eta parte hartzea "barneko" egintzetan, "bigarren mailakoetan", "emakumei lotutako" gauzetan (festak, mozorroak, bazkariak, intendentzia...) eta, berriz, gizonezkoak egotea eta parte hartzea "bentan garrantzitsuak" diren egintzetan, "kanpoko jendea" dagoenetan, "egintza garrantzitsuetan", "gizonen kontuekin" zerikusia dutenetan (ekonomia, obrak, inbertsioak, kontratazioa...).

ERABAKIAK HARTZEN ETA BURU IZATEN ERABAKIAK HARTUZ ETA BURU IZANEZ IKASTEN DA

Gaur egun oso gutxi dira zuzendaritzako eta erabakiak hartzeko esparruetan dauden emakumeak. Gizarteari emakumeen gaitasun eta baliabideak ukatzeaz gainera, sozio-politikoki ez dira ezagunak eta biztanleriaren %50aren beharrak, nahiak eta proiektuak ez dira kontuan hartzen. Legez emakumeen presentzia %40koa behar duen espazioetatik kanpo, gizonezkoak nagusi dira, %80 eta %90 bitartean.

- ▶ Nafarroako alkateetatik %18 emakumezkoak dira eta %82 gizonezkoak.
- ▶ Espainiako Merkataritza Ganberetako buruetatik %2,33 emakumeak dira. Errege Akademietako buruetatik %6,2 emakumeak dira. CEOeko Batzorde Exekutiboko kideetatik %6 emakumeak dira. Ibex enpresetako buruetan ez dago emakumerik; presidenteordeak, berriz, %8 dira eta kontseilariak %11.

Ikastetxeetan, maiz, desberdintasun hauek oso agerian gelditzen dira alderatzen badugu emakumeen eta gizonen presentzia eta parte-hartzea hezkuntza mailetako erabakiak hartzeko eta zuzendaritzako organoetan. Oro har, familiek, irakasleek eta ikasleek ikusi eta ikasten dute:

- ▶ Ikasleen lehen urteetara (haurrek "jolastu besterik ez dute egiten") zenbatenez eta gehiago hurbildu, hainbatenez eta emakume gehiago dagoela. Hala ere, ziklo hauetako irakasleen kopuru osoari dagokionez, erantzukizuneko karguetan dauden gizonen ehunekoa emakumeena baino askoz ere handiagoa da, irakasle emakumezkoek dagokienez.
- ▶ Ikastetxean, ikasleak egoten diren azken urteetara hurbilduz gero, gizonak gehiago dira, hau da, ikasketak "zerbait serioa" direnean eta "lanbide bat, etorkizuna" hautatu behar dutenean.

Dena dela, egunean eguneko lanean edo jarduera berezietan, ikasteaz gainera ikasleei erakutsi behar diegu zein garrantzitsua den emakumeen eta gizonen protagonismoa eskolako bizitzaren eta oro har bizitzaren beraren esparru publiko eta adierazgarria.